

ENAMORADO DE UNA MUERTE

Martin Arregi

Zarautz, 17 urte

Azken tragoa eta baniak. Taberna zahar hartako barra duk nire azken portua, oheko olatu eta paretetako trumoietara bildu aurretik. Tabernako azken musika doinuak etxeko marru demoniakoen aieru besterik ez dituk. *Yo ya tengo novia, ya encontré mi amor, la otra noche la besé en un callejón...* Askok musukatzen naitek ni, baina horrek ez dik ene bakardadea arintzen, *...es alta y morena, siempre está en mi mente...* nireak ez dik ez aurpegi ez gorputz beharrik, etereoa duk, eta horregatik, bere ausentziagatik, zagok beti nire buruan. *...su nombre me volvió loco, su nombre es la Muerte...* ah! Zer uste duk, ba? Ez nauk, ez, hain erraz harrapatuko, Herio, nire obsesioak izenik badik, ederretan eder gero, Lilith, gizasemeen artean paradisuak ezagun duenik baduk, paradisuak Lilith duela izen esango dik. Haren musuaren hats gozoak itxaro zegidak tabernako ate leizetsuaren bestaldean. Haren begien isla dut tunelaren irteerako argi, haren ilean josiriko izarrak alkoholetan itoriko itsasoan gidari.

Ezin ordea. Begia, berriro ere, urre likidozko gortina haren atzetik asmatzen diren irudi lujuria-tsuek erakarri ditek. Listua irentsi, izerditan blai diat bizkarra, eskuaz okotza igurtzi eta hor niak garagardo pinta berri baten amildegiaren hegitik

fantasiarik debekatueneke betetzen duten mundu onirikoari azken bisita bat egitera.

Garagardoaren usainak dagoeneko piztu dizkik nire sistema guztiak, bi dzangadatan basoa hustu aurretik desagertu duk nire aurretik ohiko tabernaren irudi tristea, udazkeneko eguzki laranja argitzen baitik orain enbor huts baten sabelean eraikitako taberna. Hanken dardarak eutsi ezin nauela eta, siloi eroso batean hondoratu diat nire burua. Aingeru aldra batek zeharkatzen dik zerua egur irregularrezko horman deabru itzalak sortuz, edo itzalezko deabruak al dituk eguzki errainu oblikuoetan aingeru islak sortzen dituztenak? Oh Belial, deabruen artean aingeru! Oh Luzifer, aingeruen artean deabru!

Beltzez trajeaturiko gizon begigorri batek bularrak miazkatzen zizkiok Rafaelen kuadro batetik ihes egindako neskatala biluziari. Hezur hutsezko hatzaz neskaren alua lardaskatzeari ekiten dionean, honen bularretatik bi marmolezko hego handiak hazten dituk. Hegoak, astintzen hastean, marmolezko geruza mehea hautsi eta neskatoaren gorputik titaniozko aingeru ttipi bat erauzi ditek, suzko gurutze bat tatuaturik, buruz behera, bekoki erdian. Inguruko aingeru zuri guztiak gerturatu dituk ia bitan zatituriko neskatalaren gorpua zeharkatzen duen erretena aska bat balitz bezala betetzen duen odola edatera. Ondoren alutik darion odolak sorturiko ibai ertzean dagoen lertxunaren adarretan bele itxuran pausatzeko.

Pupila bertikalek zeharkaturiko begi berde eta

suge buztana dituen neskatila bat xirriak egiten hasi zaidak, belaunen gainean eserita. Bi puntetan amaituriko bere mihi luzea nire ahoaren sakone-raino sartu eta bihotzean kilimak egin zizkidak. Lepoa musukatzen ari zaidak. Letagin zorrotzez azala urratu zidak garagardoa darion arte. Ezpai-nak eta mihia nire organismotik ateratako malta zukuz busti eta berriro musu eman zidak. Berriro ere bere mihia hain sakon sartu dik, ezen zut dago-en nire arima inguratu duen. Leuntasunez eragi-ten hasi zaionean nire gorputzak, ahal duen flui-dotasun osoz, plazerrezko oihu zuri bat jaurti dik, nire begietara etorri den gau iluna zipristinduz.

Hau duk kaskazurreko mina! Zer duk hau? Kaka zaharra! Berriro ere ok egin diat nire gainean, eta hori kakalekua ondoan nuela. Orain bai gozoa jarriko dela etxeko Jaungoiko epaile jauna, eta gelako ekaitzera kondenatuko naik berriz ere, kai segurura gidatuko nauten Lilith-en izarrik gabe, tunelaren amaiera adieraziko duen Lilith-en begie-tako islarik gabe. Baina lehenik eta behin komun-zulo nardagarri honetatik atera behar diat.

Kamixeta ahal bezala txukundu eta zutik jarri nauk. Lurra balantzaka ari duk, itsasontzi batean banengo bezala. Komuneko atetik irteterakoan tabernako argiek itsutu naitek. Hala ere, berehala ohartu nauk hor dagoela, atean, nire zain, nire ipa-rrorratza, nire salbazioa, Lilith, deabruaren gaue-an larrosa petaloz estaliriko ohean eme usaina harrotzen duen haize zartada erotikoa.

Nola edo hala ateraino heldu eta irtendakoan

Ilargiak, argizko hatz batez, haren gorputz jainkotiarra estaltzen duen zeta zurizko soinekoaren ertz bat seinalatu zidak, karrika ilun baten sarreran. Bertaraino gerturatzeaz bat zetazko galtzerdi zuria ikusi diat, adreiluzko pareta zaharretik irteten den kako erdoildutik eskegita. Zertxobait aurrerago, kontenedore baten ahoan harrapatu, zetazko bularretako zuri bat. Kontenedorea inguratu eta zetazko kulero zuriak karrikaren erdian, putzu zikinean botata. Bihotz taupadak azkartu zaizkidak. Belarrietan odolaren kolpe erritmikoez beste orbita batera garraiatu naitek. Begietako kapilare odoleztatuak filtro gorri bat jarri zioten nire begiradari. Paretak laino itxia jariatzen ditek ingurua- ren zantzu lurtar oro desagertaraziz. Biluzik nagok. Gandu gorrian barneratu eta hantxe zagok, nire aurrean, lainozko ohe batean etzanik. Haren bular irmoek izerdi gorritz distiratzten ditek. Esku luzeak izterren barnealde misteriozura bilduak ditik. Begiak, zabal-zabalik, nigan esekiak zeudek, baina beren antzinako isla argitsua galdua ditek, itzaliak dituk haren ileko izarrak. Zintzur irekitik darion odola duk ditiburu tenteak dirdirrazten dituen izerdi gorria. Odol gorritz josia zagok inguru guztia; odol gorria zeriok lanozko oheak lau alboetatik; odol gorria zeriok lanozko bururkian jezarririk barrez ari den titaniozko aingeru ttipia- ren ahoari; odol gorria zeriok lainozko ohearen ondoan zutik dagoen beltzez trajeaturiko gizon begigorriaren hezurrezko eskuari. Bi begi handi zabaldu dituk eszenaren atzean. Haize gogorra

altxa duk lainoak eta eszena guztia zurrunbilo batean irentsiz.

Bi begi haien atzetik sekulako herensugea agertu duk. Nolakoa den haren burua, katedrale baten tamainukoa, eta haren urregorritzko bizarra, eta haren haginak, sableak baino zorrotzagoak, haren hegoak, mundua huskeria bat balitz bezala besarkatzeko, haren hatzaparrak, mendiak gazta bailiran limurtzeko...

Baina ez duk hori, haren begiak dituk, beste guztia ahantzarazten ditek. Ez bururik, ez haginik, ez hegorik, ez hatzaparrak, ez zagok ezer begi hauetako errautsekin aldera daitekeenik. Behinola infernuko galdaretako suak baino beroagoak ziren bi sugar bikik eman zieten biziaren boterea bi begioi. Sugarrak, ordea, kontsumitu egin dik herensugearen arima behinolakoa, eternitate osoan arimarik gabeko boterearen karkasa izatera kondenatuz. Bere barrenaren ustela eta herioa ezkutatzeko kanpoaldea bitxi distiratsuz estali dik. Sabelaldea urregorritzko ezkatetz eta rubi eta diamante oktogonalez. Bizkarraldea, berriz, gauaren ilunean kamuflatu ihesean doazen arima erratuak estekatzen dituzten obsidianazko lantza beltzez eta nigromanteen begien isla diren opaloz. Den-denekin hildakoen arimak bereganatzen dizkik, Historiaren akabuan nahiko arima izango dituen esperantzan berari falta zaiona ordezkatzeko. Horrela bere gorpua gauen barna hedatzen dik, Herioren agindua zain, bere izarrez josiriko mantuan bitxi berri bat josteko prest, urregorritzko zalgurdian zerura

zihoala uste zuenari azken geldialdi eternoa eman ez zezan, zeruaren esperantza agortzen den ametsean oroimenaren amaiera den leizearen hondora heltzean.

Begi klisk batez bere osotasuna ohartu izan banu, hila nindukek, baina desagertzen ari den lainoa dela eta, pixkanaka soilik begitandu zaidak bere amaigabetasuna. Urregorritzko bizarrei eutsi eta piztiaren bizkarrera igo nauk. Hegan irten duk berehala. Hegan gindoazela ilargi errainu batek jotako rubi txiki batean Lilith-en begien isla eta haren ileetako izarren distira aurkitu ditiat, kaleko gorpuan galdurik zituenak. Goraka goazik, espiralean, gero eta zirkulu handiagoak eginez gogoratzten ez dudan hiri horren zeru izartsuaren gainetik. Atzean geratzen dituk tabernako garagardo gortina onirikoa, delirium tremens-ak (hau baino delirium tremens bortitzagorik ba ote?), titaniozko aingeru ttipiak, hezurrezko eskudun txerrenak, zintzurra ebakitako neska odoltsuak, okaz gainezka dauden kamixetak... Ni eta herensugeaz gain ez zegok beste ezer.

Hodei guztien azpitik eta sasi guztien gainetik kostalde urrun eta baketsu batera heldu gaituk. Eguzkia gure gibelean altxatzen ari duk. Piztia, luma xume bat balitz bezala pausatu duk harea birjinaren gainean.

Herensugearen bizkarretik jaitsi nauk. Hondartza osoan ez zagok inoren oin arrastorik ez kaioren kanturik. Kostatik datorren brisara epela eta urrutiko olatuen mar-mar hipnotikoa baino ez dituk

somatzen. Bira eman diat, baina herensugea jada joana duk, eki haizeak eramán ditik, bai bera bai bere arrasto oro, ni bakardade osoan utziz amaigabeko hondartza huts honetan.

Itsasorantz zuzendu ditiat nire urratsak. Amai-gabea egin zaidak bidea, baina halako batean heldu nauk. Jada ezaguna zaidan haize zurrunbiloa somatu diat uraren gainazal leuna harrotzen. Halako batean bi begi erraldoi agertu dituk ur barearen gainean, ezerezean eskegita. Bira eman diat norabait ihes egin dezakedan ikusteko, baina nire urratsetatik sortu den errekastoa duk soilik hondartzako monotonia isila hausten duena, jada ez duk haizerik, jada ez duk olatuen mar-mar hipnotikoarik.

Ezinbestean, onartu nahi ez dudán egoera honi aurre egin behar izango zioat. Hala, atzera begien-gana itzuli nauk. Jada ez duk ezer, hondorik gabeko bi begitzar erraldoi horiek besterik. Bata gorria duk, beltza bestea, batari gorrotoa zeriok, besteak ahots gozoz deitzen naik. Bata beltza, gorria bestea, batean oroimenik gabeko hondo inexistentearen bilaketa betierekoa, bestean ahazturaren patxada arduragabea. Bi begiek so dagidate, bata bestea baino sakonago, bestea bata baino gorrotagarriago... Nire garuneko pentsamendu oro jazarri eta bere baitara biltzen ditek... adioa duk hau... oroimenik ez,... ahazturarik... ez,... EZER... EZ...